



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

## **Foru Aldundiak konpostajea eta lehen sektoreagaz izan beharreko harremanak bultzauko ditu**

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatu Elena Unzuetak bere Sailak datozan lau urteetarako izango dituan lehentasunak azaldu ditu gaur Batzar Nagusien aurrean. Lau urte horreetan behar egingo dau lehen sektoreagaz izan beharreko harremanak indartzeko eta Lurraldeko eskualde periferikoetan konpostaje plantak garatzeko. Batzarretako taldeen aurrean egindako agerraldian, Nekazaritza eta Ingurumeneko sailen eta Garbiker eta Basalan soziedadeen zuzendaritzak batzen dituan Aldundiko Sail barriko arduradunak adierazo dau bere sailak behar egingo dauela “Alemania txikiak” –Bizkaiak– “garapen iraunkorreko maila altuenak” lortu daizan. Unai Rementeria buru dan Aldundiko bozeroaleak, Bizkai “berdea” aurrera eroateko bere taldeak gauzatuko dituan jarduketak azaldu ditu Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean egindako lehenengo agerraldian.

Holan, ur arloari jagokonez, Lurraldeko udalerrri “guztiak” Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren barruan sartzea bultzatuko dala eta erakunde horregaz azpiegiturak finantzetako hitzarmenak sinatzen jarraituko dala iragarri dau. Aldi berean, Karrantza Haraneko saneamendu proiektuak gauzatuko dira, bertako Udalagaz lankidetzan. Horrez gain, Urdaibaiko Hornidurarako Lurralde Ekintza Plana prestatuko da, Ura erakundeagaz lankidetzan, eta Busturialdeko saneamendu sarea amaituko da.

Hondakinen kudeaketari jagokonez, erronka nagusia konpostaje mailak handitzea izango da. Horretarako neurri bi ezarriko dira: eskualde periferikoetan konpostaje planten pixkanakako garapena eta Bizkaiko udalerrri guztietan bosgarren edukiontzia ezarteari bultzadea emotea. Arlo horretan, aurrera jarraituko da udalerrri guztietan edukiontzi zuria (berrerabili daitekezan hondakin txikiak) zabaltzeko egitekoagaz, eta Bizkaiko Hiri Hondakinen Kudeaketa Plan Integrala (HHPI-PIRU) 2020. urtera arte luzatzea proposauko da, plan barriaren helburuak Arteztarau Europarrera egokitzeke.

Ondare naturalaren arloan, Urkiolako eta Armañongo Plan Zuzendarien burutzapen prozesuak eta parke naturaletarako eta kontserbazino bereziko guneetarako Kudeaketa Jarduketak amaituko dira, eta dokumentu horreek onartu eta gero, bertan aurreikusten diran kudeaketa jarraibideak aurrera eroango dira. Ganera, Euskadiko Meatzaritzaren Kultur eta Ingurumen Parkearen Interpretazino Zentroa jarriko da martxan Meatzaldean, Eusko Jaurlaritzagaz eta Abanto Zierbenako Udalagaz lankidetzan.

Ziurtapena lortu daben hondartza kopuruaren hazkundeak eta hondartzetako zerbitzuen eta segurtasunaren hobekuntzak, Urdaibaiko hondartzen Mobikortasun Iraunkor Plana burutzeagaz batera, izango dira hondartzakaz erlazonatutako ekintza nagusiak. Aisialdirako guneei jagokonez, proiektu garrantzitsuenetako bat Meaztegi Berdea gunea bultzatzea izango da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko Sailak izango dauen barrikuntza nagusietakoa ehiza eta arrantza saila Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren barruan sartzea da.

Nekazaritzari jagokonez, I+G+b jarduketak eroango dira aurrera frutagintzan, mahastizaintzan eta enologian, Zallako Frutagintza Estazinoaren bitartez, eta ingurumeneko neurrien, klimaren eta nekazaritza ekologikoaren inguruan Landa Garapen Planaren barruan aurreikusten diran erkidegoko laguntzak gauzatuko dira, beste ekimen batzuen artean.

Abeltzaintzaren arloan landuko diran alderdiak osasuna (arraza garbien alkateteei, gaixotasunak desagertu arazoteko laguntzen programak zabalduko dira), animalien ongizatea (Herri Kiroletako probatan animalien ongizatearen kontrola indartuko dauen arauzko garapen barria ezarriko da) eta animalien ekoizpena (abeltzaintza ustiapenen erregistroa hobetuko da eta Animalien Elikaduraren Kontrolerako Programea indartuko da, Eusko Jaurlaritzagaz lankidetzan) izango dira.

#### ESPEZIE INBADITZAILEEN KONTRAKO BURRUKAN ADOSTASUNA BILATZEA

Batzarretako taldeek espezie inbaditzaileei (Panpako luma-mottoa eta liztor asiarra) aurre egiteko aurrera eroan beharreko politikari buruzko informazioa eskatu dabe, eta Aldundiak, bere ingurumen politikak gauzatzeko orduan “adostasunaren” aldeko apustua eginez jarraituko dauen ala ez galdetu dabe. Azken galderari jagokonez, bere sailak lankidetzaren aldeko apustuagaz jarraituko dauela adierazo dau Unzuetak. Espezie inbaditzaileen kontrako burrukari jagokonez, arazo horri konponbidea bilatzeko erakundeen arteko lankidetzak estua aurrera eroatearen alde agertu da.

EH Bildu taldeak hasieratik markau ditu bere oposizinoaren ildoak, uraren eta hondakinen kudeaketaren arloan, batez be. Eztabaidan, Bizkaiko udalerrri guztiak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartu behar diren ganean Aldundiagaz dituan desadostasunak erakutsi ditu, “errealidade anitzak dagozalako”, Asier Vegak adierazo dauenez. Aldi berean, HHPI-PIRU izenekoaren luzapenaren kontra agertu dira, eta hondakinei buruzko plan orokor “barria” eregitearen aldeko apustua egitea eskatu dabe, gaur egungoak “porrot” egin dauelako, Zabalgariaren inguruan egituratuta dagoalako. Aldundiak hori ez dala holan esan dau.

Koalizino abertzaleak eskaerea egin dau, gaikako bilketea errealidade bilakatu daiten Lurralde osoan, udalerririk ere du desbardinak aurrera eroaten baditue be, “atez atekoa, bosgarren edukiontzia edo konpostaje plantak”, besteak beste. Arlo horretan, Aldundiak udalerrri bakotxaren errealidadearen aurrean sensibildadea erakustearen alde agertu da EH Bildu.

#### BANDALISMO ARAZOA TRAPAGAKO ZUGAZTIETAN

PP taldeari erantzunez, Elena Unzuetak Trapagako Zugaztietan eta inguruan izandako azkeneko ekintza bandalikoak aitatu ditu. Bere berbetan, ekintza horreek “12.013 euroko” triskantzak eragin ditue altzarrietan eta instalazinoan eragindakoak kontuan izanda. Gertakari horreen aurrean, diputatu andreak autortu dau holango ekintzak ez dirala salatzen, popularrek eskatu daben moduan, “esperientziak erakusten deuskulako horrek ez dauela ezertarako balio, ezinezkoa dalako kalte horreen eragileak identifiketea”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Aldundiak adierazo dauenez, bere jarrera kaltetutakoa konpontzea da, herritarrek Bizkaiko ingurune naturalaz eta aisialdi gunez gozetako eskubidea daukielako, gitxi batzuek kalteak sortzen dituen arren, eta prebentzioaren arloan lan egitearen alde agertu da. Aldundia, elementu batzuk gehiago ikusten diran lekuetan jartea eta Muskizko Ertzaintzaren komisariagaz dagoan harremana estutzea aztertzen ari da, patruila gehiago bialduta kalteak saihesteko. Ertzaintzaren laguntzari eta leku batzuk ixteari esker, egoerak hobera egin dau, diputatu andreak adierazo dauenez.

PP taldearen eretxiz, barriz, ekintza bandaliko horreek “doban ez izateko” ordua heldu da. Horretarako, eskaerea egin deutso Aldundiari, gertakariak “beti” salatu daizan, urtez urte “behin eta barriro” errepetiduten diralako. Arturo Aldecoa batzordekide popularrak adierazo dauenez, 1999. urtean, daborduko, ekintza bandaliko horreek 124.000 euroko kalteak eragin ebezan Bizkai osoan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **La Diputación impulsará el compostaje y las relaciones con el sector primario**

Bilbao, a 14 de septiembre de 2015

La Diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha presentado hoy en las Juntas Generales de Bizkaia las prioridades de su departamento para los próximos cuatro años, en los que trabajará para reforzar la relación con el sector primario y en el desarrollo de plantas de compostaje en las comarcas periféricas del Territorio. En su comparecencia ante los grupos junteros, la responsable del nuevo departamento foral, que aúna la direcciones de los departamentos de Agricultura y Medio Ambiente y de las sociedades Garbiker y Basalan, ha indicado que trabajarán para que la “pequeña Alemania” – Bizkaia- alcance las “mayores cotas posibles de desarrollo sostenible”. La portavoz del Ejecutivo de Unai Rementeria ha desgranado en su primera intervención en la Cámara vizcaína, las diferentes actuaciones que desarrollará su equipo para desarrollar una Bizkaia “verde”.

Así, en materia de aguas ha anunciado que se impulsará la integración en el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia de “todos” los municipios del Territorio y que se seguirán firmando convenios con esta entidad para la financiación de infraestructuras, al tiempo que se ejecutarán los proyectos de saneamiento de Karrantza Harana, en colaboración con el ayuntamiento. Además, se elaborará un Plan de Acción Territorial de Abastecimiento de Urdaibai en colaboración con Ura y se culminará la red de saneamiento de Busturialdea.

En cuanto a la gestión de los residuos, el principal reto será aumentar los índices de compostaje, para lo que se implementarán dos medidas: el desarrollo progresivo de plantas de compostaje en las comarcas periféricas y el impulso de la implantación en todos los municipios de Bizkaia del quinto contenedor. En esta materia, también se continuará la extensión a todos los municipios del contenedor blanco (pequeños residuos reutilizables) y se propondrá una prórroga del II Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia (PIRU) hasta el año 2020 para adecuar los objetivos del nuevo plan a la Directiva Europea.

En el ámbito del patrimonio natural, se culminará el proceso de elaboración de los Planes Rectores de Urkiola y Armañon y los Documentos de Directrices y Actuaciones de Gestión para los parques naturales y las zonas de especial conservación y, una vez aprobados esos documentos, se desarrollarán las directrices de gestión previstas en los mismos. Además, se construirá y se pondrá en marcha del Centro de Interpretación del Parque Cultural y Ambiental de la Minería del País Vasco, en Meatzaldea, en colaboración con el Gobierno Vasco y el Ayuntamiento de Abanto Zierbena.

El aumento del número de playas certificadas y la mejora de sus servicios y seguridad, junto con la elaboración del Plan de Movilidad Sostenible de las playas de Urdaibai, serán las principales



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

acciones en relación a los arenales, mientras que en las áreas de esparcimiento uno de los proyectos más relevantes será el impulso del área Meaztegi Berdea.

Una de las novedades dentro del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural es la inclusión del área de caza y pesca en la Dirección General de Medio Ambiente.

En materia agrícola, se abordarán actuaciones de I+D+i en fruticultura, viticultura y enología a través de la Estación de Fruticultura de Zalla y se desarrollarán ayudas comunitarias sobre medidas agroambientales, clima y agricultura ecológica previstas en el Plan de Desarrollo Rural, entre otras iniciativas.

En el ámbito ganadero, se trabajará en las áreas de sanidad (se ampliarán los programas de ayudas a asociaciones ganaderas de razas puras para la erradicación de enfermedades), de bienestar animal (se implementará el nuevo desarrollo normativo que refuerce y endurezca el control del bienestar animal en pruebas de Deporte Rural), y de producción animal (se mejorará el registro de explotaciones ganaderas y se reforzará el Programa de Control de Alimentación Animal en colaboración con el Gobierno Vasco).

#### BUSCAR EL CONSENSO Y LA LUCHA CONTRA ESPECIES INVASORAS

Los grupos junteros han solicitado información sobre la política a desarrollar sobre las especies invasoras (el plumero de la Pampa y la avispa asiática) y sobre si seguirá la Diputación apostando por el “consenso” a la hora de aplicar su políticas medioambientales. Respecto a lo último, Unzueta ha señalado que su departamento seguirá apostando por la colaboración y por el trabajo en común. En cuanto a la erradicación de las especies invasoras, aboga por desarrollar una estrecha colaboración interinstitucional para buscar solución a esta problemática.

Por su parte, EH Bildu ha marcado desde el principio las líneas de su oposición, especialmente en el ámbito de la gestión del agua y las basuras. En el debate, han plasmado sus discrepancias con la Diputación en que todos los municipios de Bizkaia tengan que integrarse en el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, ya que “existen realidades diversas”, ha señalado Asier Vega. Del mismo modo, han rechazado la prórroga del PIRU y ha animado a que se apueste por construir un plan general de residuos "nuevo", ya que el actual es un “fracaso” pues pivota sobre Zabalgarbi, algo que han negado desde la Diputación.

La coalición abertzale ha pedido que la recogida selectiva sea una realidad en todo el Territorio, sin prestar atención a que los municipios desarrollen diferentes modelos como el “puerta a puerta, el quinto contenedor o las plantas de compostaje”. En este sentido, se han mostrado partidarios de que la Diputación sea sensible a la realidad de cada municipio.

#### PROBLEMA DE VANDALISMO EN LA ARBOLEDA

En contestación al PP, Elena Unzueta se ha referido a los últimos hechos vandálicos acaecidos en La Arboleda y en su entorno, y que han originado unos destrozos valorados, según ella, en “12.013



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

euros”, sumando la reposición de mobiliario y la instalación. Frente a estos hechos, la diputada ha reconocido que este tipo de hechos no se denuncian , como le pedían los populares inicialmente, “porque la experiencia nos dice que no es eficaz, al no poderse identificar al infractor”.

La Diputación ha señalado que su postura es volver a reponer lo dañado puesto que la ciudadanía tiene derecho a disfrutar del entorno natural de Bizkaia y de sus áreas recreativas, pese a unos pocos, y ha abogado por trabajar en la prevención. La Diputación se plantea la reubicación de algunos elementos en zonas más visibles y estrechar la relación con la comisaría de la Ertzaintza de Muskiz para evitar más daños por medio de la intensificación de las patrullas. Gracias a esta colaboración y al cierre de algunas zonas, la situación ha mejorado, según ella.

Para el PP, sin embargo, ha llegado la hora de que estos actos vandálicos “no salgan gratis”. Para ello, ha pedido a la Diputación que denuncie “siempre” los hechos, ya que , año tras año, es un “suma y sigue”. El apoderado popular Arturo Aldecoa se ha referido a que ya en el año 1999 estos actos vandálicos supusieron unos costes de 124.000 euros en todo Bizkaia.